

# Herriak bakarrik salba dezake herria

Koldo SAGASTI

**U**rtarrilaren 26an, beste milioika pertsona bezala, ezinegenez nengoen historikoa izan zitekeen Nazioarteko Justizia Auzitegiaren ebazpen baten zain. Aste batzuk lehenago, Hego Afrikak NBEko justizia erakunde gorenera eraman zuen Israelgo estatua, azken hilabeteotan Gazako populazioaren kontra burututako sarraski ankerragatik; eta askok, gure xalotasunean, epaimahaiak gertakari horiek genozidio-krimen izendatuko zituen adierazpena kaleratu behar zuela espero genuen. Baina ez, ez genozidio izendapenik, ezta su-eten adierazpenik ere. Uste guztiak erdi ustel.

Lehenengo orduetan Raji Sourani legelari gazatarrak egindako irakurketak hasierako sumindura horretatik atera ninduen. Haren esanetan, NjAk ebazpe-

na argitaratu zueneko eguna «historikoa zen palestinarentzat», euren eskakizun guztiak asetzen ez baziren ere, aurrekaririk gabeko aurrerapauso nabarmenak egiten zirelako, akusazioak aurkeztutako ebidentziak aintzat hartu eta Israelen gain jartzen zelako genozidio krimenik ez burutu izana probatzearen zama. Beste analista batzuk, berriz, ez dira hain baikor agertu. Mussa'ab Bashir kazetari gazatarrak uste du epaimahaiaren erabakia «parodia juridiko» bat dela, «burla bat herri palestinarraren sufrimenduari», eta mundu mailako justizia-sistema «ordena hegemoniko globalaren isla» dela.

Nolanahi ere, ebazpenaren erredakzioa hain interpretazio kontrajarriak egiteko bezain anbigua eta bihurria izan bada, horrek gauza bakarra erakusten du, egitura horietan ez dagoela eki-

men zintzo bat zezenari adarretatik heldu eta anormaltasun historiko honi amaiera emateko; alegia, gauzak aldatzeko eskumena daukanak ez daukala egiteko borondaterik.

Gauzak horrela, Palestinari itxaropenik geratzen bazaio, nazioarteko erakundeetatik baino, eskumenik ez izanagatik, gauzak aldatzeko borondatea duten horiengandik etorriko zaio. Duela astebate, Ordizian, CAF konpainiari Israelekiko konplizitatea aurpegiratu zioten milaka herritarrek; herenegun, Gasteizen, Maccabi saskibaloitaldeari gaitzespena erakutsi zioten zaletuek; eta, oro har, hilabete hauetan mundu osoko kaleetara sumindura atera duten milioika pertsonak izango dira tortillari buelta eman eta apartheid erregimenaren gainbehera eragingo duten indar eraldatzailea. •

## Burutazioak

Asier AIESTARAN

**A**maitu berri dut Jon Artanoren “Juana” liburua, eta, irakurketa interesgarriekin gertatzen den legez, azken lerroa bukatu ondorengo orduetan buruari entengabe bueltaka nabil.

Indarkeriak gizakion bizitzetan duen presentziaz hausnartzera eraman nau, esaterako, munduko bazter guztietan eta belaunaldi desberdinetan. 1936-1937an Euskal Herrian gertatutakoa ezagutzen dugu gutxi-asko, AEBtako armadaren base bat Afganistanen irudika dezaket, baina Kolonbiako kostaldean kokatutako eremu basati eta ia birjin batean armek har dezaket pisu itoga-

rriak gehiago harritu nau, herrialdea ongi ezagutzen ez dudana seinala.

Azken horrekin lotuta, kontakizuna interesgarria iruditu zait Estatuaren boterea eta indarkeriaren monopolioa iristen ez den eremuetan gizakiok hartzen dugun jokabidea ulertzeko. Eta burua Siziliako mafiaren sorrerari buruzko nobela eta filmetara joan zait, non herritar txiroek familia boteretsuen babes bilatzen duten errealitate arriskutsu eta kaotiko baten aurrean.

Eta azken txiribuelta batean, beste gogeta bat ere sortu zait. Estatuaren “ausentziak” herri xumea armak hartzera eraman/behartu badezake, nolatan ez

ditu hartuko, Estatu horrek zuzenean eraso egiten diola sentitzen badu? Eta hau ulertzeko ez dago Euskal Herritik oso urrutira joan beharrik.

Palestinara begiratu besterik ez dago munduan indarkeria akabatzetik oso urrun gaudela frogatzeko. Ukraina, Yemen, Afrikako hainbat eta hainbat herrialde... Eta baita eskala baxuagoan beste hainbat indarkeria mota desberdin ere. «Zer da gerra?», galdetzen dit autoan irratia entzuteko zaletasuna hartu duen semeak. «Zer da Israel?». «Eta Palestina?». «Gure etxea bonbardatuko al dute?» Espero dut ezetz, baina ez naiz ozenegi esatera ausartu. •